

FUNTSEZKO JARDUERA

Edozein negozio eredutan hainbat funtsezko jarduera egin behar dira, enpresak edo erakundeak ondo jardun dezan. Hauek dira gureak:

1- Zerbitzu telefonikoa: 2 pertsonak emango dute zerbitzu hori eta biak okupatuta balude, kontestadoreak esango die mezua uzteko deia lehen bait lehen bueltatzeko. Aukera emango diegu zenbakien bidez zer zerbitzu mota nahi duten azaltzeko: informazio orokorra, produktuen eskaera, dietistaren zerbitzua etab...

2- Garraioa: guk egindako garraioa, zuzena, oinarrizkoa zerbitzu guztietan, bizikletaz, etxeraino, azkarra (egunean bertan edo hurrengoan).

Eskainiko ditugun zerbitzuak, bezeroentzat hautagai hauek dira:

- a) Erosketa: Zerbitzu telefonikoaren bidez bezeroek erosi nahi dutenaren informazioa pasatzen digute. Hori jaso ondoren prestatu eta etxera eramango diogu kasu guztietan.
- b) Erosketa+ kolokatzea: Aurreko zerbitzuaz gain erositakoa eskatzen diguten lekuan kolokatuko dugu, kontutan harturik gauza asko pisudunak izango direla eta helduentzat hori suposatzen duen zailtasunarekin.
- c) Dietista+ erosketa: Dietistarekin lehen elkarrizketa bat edukiko dute beraien etxean bezero berriek eta jasotako informazioarekin menu bat egingo die hilabete osorako. Horrekin bezeroak osatu dezake bere erosketa zerrenda eta maiztasuna gure telefonoz eskaera egiteko. Dietistak horretaz gain, segmentu bat egingo du hilabetean behin telefonoz, nola joan zaien jakiteko, aldaketak proposatzeko eta menuak ere egokitzen joateko emaitzen eta sasoiaren arabera.
- d) Dietista+ erosketa + kolokazioa: Aurrekoaren zerbitzuari erositakoa bezeroak eskatzen den lekuetan gehituko genioke.